

Zubietako industria-poligonoarekin Amorebietako udal-sareari dagokion bizikletetarako konexioa

Amorebieta-Etxanoko Udala



Proiektu honen helburua Amorebietako udal-saretik Lauaxeta ikastolaren oineraino bizikletetarako konexioa egitea da. Ibilbide horretan Cándor, Tolsan eta Zubietako industria-poligonoak inguratu dira.

Bidegorri hori eraikitzeak bizikletan joan-etorriak sustatu nahi ditu, bai industria-poligonoetara lanera joateko, bai Lauaxeta ikastolara iristeko.

Batetik, bizikletan lanera joatea 2003-2016rako Bizkaiko Bizikleta Bideei buruzko Plan Gidariaren lehentasunetariko bat da. Plan honen arabera, iraunkortasunaren jokabideak zehazteko erabat beharrezkoa da mugikortasun arduratsua irakastea. Ildo horri eutsiz, derrigorrez egin behar diren joan-etorrietan pixkana ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitzea lortu

Una manera de hacer Europa
Fondo Europeo de Desarrollo Regional



behar da eta, horretarako, mekanizatuak ez diren garraio-moduak edo garraio publikoa saritzeko neurriak erraztu behar dira.

Bestetik, bidegorria eraikitzeari esker, Lauaxeta ikastolak, bere hezkuntza-proiektuan islatzen duen bezala, irakaskuntzaren eremutik bizikletan egindako mugikortasunari eta joan-etorriei balioa emango die.

Obrak ondoz ondoko bost fasetan garatu dira, ibilgailuen eta oinezkoen trafikoari ahalik eta interferentzia gutxienak eragiteko:

- I. Fasea: bidegorri babestua, oinezkoentzakoarekin partekatua, autopistaren zubitik Cándor poligonoaren mugaraino, Ibaizabal ibaia inguratuz.
- II. Fasea: landa-tartea Tolsan industria-gunearen sarreraraino, ibilgailuen zirkulaziorako noranzko bikoitzeko bidearekin; oinezkoentzat bazterbide bat du eta bizikletetarako bide bereizi bihurtu da.
- III. Fasea: Tolsanen industria-gunearen eta Zubieta poligonoaren arteko pasabidea; bertan oinezkoentzako erreiarekin partekatuta, bidegorria eraiki da.
- IV. Fasea: A-8 autopistaren azpiko pasabidearen beste aldetik abiatuta, Zubieta poligonoaren inguruko bidean zehar doan tartea. Tarte honetan bizikletetarako bidea bizikleta-espaloï babestua da eta babesik gabeko oinezkoentzakoarekin partekatzen da.
- V. Fasea: Padres Pasionistas ikastetxearen hegoaldeko mendi-mazelaren oinarritik doan landa-bidea moldatzea eta errepidea Zubieta poligonoko bizikleta-bidearekin (4. fasea) komunikatzen duen pasabidea eraikitzea. Bidearen muga mendia ezpondaren kontra partekatutako bizikleta-bidea da.

Una manera de hacer Europa
Fondo Europeo de Desarrollo Regional

